




euskal herriak  
bere eskola

**ALDARRIKAPEN TAULA**



**eskolak euskaldundu  
behar du**

Testu hau Euskal Herriak Bere Eskolak egin du 2007an Altsasun egin zituen III. Nazio Mintegietan zehaztutakoaren arabera. Bere helburua Aldarrikapen Taula berritzea da eta ezin uler daiteke beste aldarrikapenetatik bereizia.

Euskal Herriak Bere Eskolak Hezkuntza Sistema Nazionalaren bidean hainbat ildo jorratzen ditu esku artean duzuen hau horietako bat izanik.

Informazio gehiagorako:  
<http://www.euskaleskola.org>



Lan hau Creative Commonsen cc-by-sa-2.5 lizentzia pean argitaratzen da. Libreza zara bertan dagoen edukia partekatu eta adierazteko, edozein bide erabilita, beti ere egilea aitortu eta modu berdinean partekatzen baduzu.

**Euskal Herriak Bere Eskola**  
2008ko Azaroa

# ESKOLAK EUSKALDUNDU: EHBEren PROPOSAMENA

## 0.SAR HITZA

Eskolaren bidez herritarrak euskalduntzea Euskal Herria berreuskalduntzeko ahaleginean lan estrategikoa da. Be-launaldi berriak euskaldundu gabe, Euskal Herria euskalduntzea ezinezkoa izango dela aspaldidanik jakitun da herri hau..

Bide horretan, hainbat pausu eman diren arren, oraindik ere asko dago egiteko. Ibilbide honetan txanponaren bi aldeak ezagutu ditugu, herritarren ahalegina eta borondatea batetik, eta instituzioen itxikeria, iruzurrak eta inposaketak bestetik..

Azken urteotan ahalegin eta borondate horren erakusgarri izan dira eskolak euskalduntzearen aldeko sinadura bilketa erraldoia (107768 sinadura eskuratu ziren) edota eginiko dozenaka mobilizazio. Aldi berean, gero eta agerikoagoa da, instituzioen iruzurren gaitetik herritarren nahia, borondatea eta eskubidea nagusitu behar dela. Zentzu honetan, Nazio Eztatidaguneak eskolak euskalduntzearen estrategikotasuna aitortzen du eta auzolanean pausuak egiten ari gara.

Muga eta oztopo guztiak gainditu eta eskolak Euskal Herriko ikasle guztiak euskalduntzeko ahalegin honek babes juridiko-politiko behar du. Hitz lausoan, Euskal Herri osoa barnebiduko duen marko juridiko berria, euskararen ofizialtasuna eta Hezkuntza Sistema Nazionala aitortu eta eskubideak bermatuko dituen ezinbesteko tresna dugu

## 1.EGOERAREN AZTERKETA

### Estatuak

Espainia eta Frantziako estatu nazio strategiaren helburua euskara desagerrarazi eta gaztelera zein frantsesa Euskal Herrian hizkuntza nagusi eta bakarrak izatea du helburu. Helburu hau historikoa da eta gaur egun ere bere horretan mantentzen da: frantziar eta espainiar Hezkuntza Sistema inposatzen dute gure herrian, hezkuntza lehen-tasunez erabili izan dute beraien nazioa eraiki eta gurea itozteko, gure sistema propioa garatzea ezinezko eginez. Es-trategia honek eragin latza izan du gure herrian, euskara ia desagertzera ino eramanen eta oraindik orain desagertzeko arriskuan dago (hala diote bertako eta kanpoko adituek).

Estatuek eta euren jarrera babesten dutenek hizkuntzaren gaian eztabaida ideologikoak behin eta berriz galdu di-tuzte azken hamarkadetan, nahiz eta lurraldez lurralde eta eskualdez eskualde duten zilegitasuna ezberdina izan. Ha-labeharrez, espainiera eta frantsesa eskolako hizkuntza bakarra izan behar zuela esaten zutenek galdu egin zuten. Ondoren aukeratzeko eskubidearen eztabaida faltsua jarri zuten mahai gainean eta gaur egun hizkuntza-ereduen artean aukeraketa egitera behartzen gaituzte, baina eredu politiken eztabaida dagoeneko gainditua dago lurralde batzuetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan) eta gainditze bidean besteetan.



Dena den, bi estatuetatik inposaketa, iruzurra eta erasoak besterik ezin ditzakegu espero, gauzak asko aldatu ezean behinik behin. Gainera lehenago esan bezala, Estatuaren politika genozidek hizkuntza hiltzorian utzi zuten eta ez dugu trikimailu guztiak desaktibatzea lortu. Hizkuntza ereduaren politikak indarrean egotea horren erakusle.

## Euskal Herrian

Saiakera horren gaineratik Euskal Herritarrek ere euskara putzu sakon eta ilunetik ateratzeko hamaika ahalegin egin izan dugu eta ez nolana hikoak!

-Ikastolen mugimendu indartsua: 60/70eko hamarkadan 500 bat ikasle izatetik ehundik gora ikastola izatera pasa dena.

-Eskola publiko euskaldunaren alde eta berau euskalduntzeko egindako hamaika ahalegin.

-Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak milaka kaltetu (eskolak euskaldundu ez dituen herritarrak) euskaldundu ditu azken hamarkadetan.

-Eskolak euskalduntzearen aldeko aldarrikapenak berebiziko indartzea ezagutu du azken urteotan Eskolak Euskaldundu Herri Ekimenaren bitartez. Lan honetan EHBEren parte hartzea ezinbestekoa izan da.

Hala ere, herri mugimendutik egindako lan esker ga honek ez du izan Euskal Herrian hezkuntzaren gainean eskumenak (mugatuak izan arren) dituzten erakundearen laguntzarik. Kasu batzuetan guztiz kontrako jarrera izan da nagusi (Nafarroako gobernuak) eta beste zenbaitetan egoerari buelta emateko beharrezkoak diren neurriak hartzeko orduan uzkur aritu dira (Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa) euskararen berreskurapen prozesua guztiz oztopatuz eta bururaino eramateko herri gogoari kateak ipiniz:

Nafarroako Foru Komunitatea. Eskolak euskalduntzearen aldeko herritarren jarrerak eta herri presioak hartara eramanez, hainbat neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak azken legegintzaldian: Ikastolen legalizazioa, zonalde mixtoa herri gehiagotara hedatzeko proposamenak, Euskarabidearen (lehen Euskararen Nafar Institutua) sorrera. Hala ere, maskara honen atzean eskolak ez euskalduntzeko neurri berri eta gogorrak gauzatzen ari dira gobernuek:

Hello Haur Eskolak. Haurrek txikitatik gaztelera eta ingelera ikasi eta euskara ez ezagutzeko saiakera berri eta oso larria da. Ingelera/Gaztelarako haur eskolak ireki eta promozionatzen dituzten bitartean euskarazko Haur Eskoletarako dagoen eskari handiari ez diote inondik inora erantzuten.

British. Lehen hezkuntzan, Helloaren ereduari jarraiki, euskara baztertu eta Ingelera/Gaztelera ikastetxeak bultzatzen ari dira. Ingeleraren garrantzia azpimarratuz, borroka ideologiko berria ireki dute, gaztelera eta euskara elkarren aurka jarri beharrean ingelera prestijiatuz, euskara hirugarren mailako hizkuntza gisa proiektatuz eta praktikan ikastetxe hauetatik baztertuz. Helburua, D ereduak matrikulazioa murriztea da.

TIL: edo Tratamiento Integrado de las Lenguas. Planteamendua borobiltzen duen plan pilotua da, 6 ikastetxetan gauzatzen ari dena eta sistema osora hedatzeko bokazioarekin. Ingelera indartzeko aitzakiapean ikastetxetan ingelera orduen gehitzea planteatzen du, hori bai, gaztelera derrigortasuna mantenduz Nafar ikasle guztiei eta euskara aukera gisa utziz (hegoaldean hori ere ez).

Nafarroako Gobernuak egiten ari dena, euskararen desagertzearen formula berriak aurkitzen saiatzea besterik ez da. Hello edo Brithis bezalako ereduak bultzatu eta D ereduak kaltetzen saiatzen ari da alde batetik. Bestetik, TILa hainbat ikastetxetan frogatu pilotu bezala planteatzen ari dira, ondoren eredu bakar gisa ikastetxe guztietara hedatzeko. Erasoaldi berri honen aurrean indar guztiz erantzun beharra dago, planteatu duten ordagoari baietz esan eta Nafarroan Eskolak Euskalduneko duen aro berria irekitzeko ahaleginak biderkatzeko garai da.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Azken urteotako herri presioak Gasteizko Hezkuntza Saila Hezkuntzako Hizkuntza politika berritzeko proposamena egitera behartu du. Hala, Hizkuntz Ereduen politikaren porrota onartu eta eredu bakarrentz eramango gaituen lege-zirriborroa alderdi politiko, sindikatu eta hainbat eragileri aurkeztu die. Eredu bakarrentzako joerak, ordea, ez dakar “de facto” euskararen ezagutza eskolaren bidez bermatzea. Gakoa, euskara ardatz izango duen legea egitean dago eta beronen ebaluazio jarraien bidez, legea bete dadin aplikatuko diren neurrietan edo ikastetxeei eskaini beharreko baliabideetan.

Lege proposamena sakon aztertu eta gero hainbat adjektibo jarri diezazkiokegu: hutsuneduna, zehazgabea, malgugia. Hau da, iruzur berri bati ateak irekitzen dizkion proposamena da, dagoenetan utziz gero ez du inondik inora EAEko ikasle guztiak euskalduntzea lortuko, ez behintzat ingurune erdaldunetan: Bilbo, Gasteiz, Ezkerraldea... ikasle gehien biltzen diren inguruneak hain zuzen ere.

Gauzak horrela, iruzur berriaren aukerak ondoko neurriek irekitzen dituzte: helburuak ez dira argi zehazten, B2 maila eskuratzeko betekizuna bera ere ez da proposamenean agertzen; irakasle euskaldunak izateko neurri zehatzak hartu gabe jarraitzen dute (irakasle eskoletatik erdal adarra desagertzea; kontratazio berrietako profila ez zehaztea; IRALE programa berririk ez aurkeztea); euskarazko irakasgai minimoak soilik %60 izatea, eredu berria B ereduaren parekoa izatea dakar (gogora dezagun B ereduak 3 ikasletik 2 ez duela euskalduntzen); eskolaz kanpoko ekin-tzak euskalduntzeko neurririk ez da definitzen; legea gauzatzeko presupuestorik eza; etab.

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa. Euskararen Erakunde Publikoak 2020a bitarte iraungo duen Euskararen Plana aurkeztu zuen orain bi urte. Plan honek hezkuntzaren arloa ere ukitzen du. Orain arte esan bezala, Euskararen Erakunde Publikoa Frantziako Gobernuaren instituzio bat da eta hari men egiten dio. Euskarak hiru herrialdeetan berreskurapena lortzeko behar dituen neurriak ez ditu eskaintzen, ez ditu ezta helburutzat ere: Euskararen Ofizialtasuna ez dago EEPren agendan. Nola berreskuratu hil zorian dagoen hizkuntza, ofiziala ez bada? Iruzzurren instituzioa den honek hainbat neurri (dirulaguntza esango genuke) planteatu ditu bere planean; helburua, ordea, euskararen aldeko herri mugimendua bere sareetan harrapatzea da noski. Hala ere, euskara berreskuratzeko egin duen plan exkaxa eta berau garatzeko baliabide ekonomiko zein pertsonal urriek, Max Brissonen instituzioaren iruzur gaitasuna murriztu dute.

### **Nazio Eztabaidagunea**

Zorionez, euskara itotzen duten marko zatikatzaile eta murriztuetatik haratago Nazio Eztabaida lehen aldiz egin zenetik bide berri bat jorratzen ari gara Euskal Herrian, behingoz nazio estrategia integrala dugu. Hala, eskolak euskalduntzearena, Euskal Herriaren bizi iraupen eta garapenerako egiteko garrantzitsu gisa onartua da. Bide hau ere ez da arrosa bidea, beronen gainean indarrak jarri eta proposamenean sakondu beharra dago. Eskolak Euskaldundu dezan Euskal Herri osorako proiektu bat egitea da helburua. Proiektu edo proposamen hau egiteko gaur egun dau-den beste proposamen batzuk izan daitezke abiapuntu: Kontseiluarena, LABena, eskuetan duzuna, etab. Baina etorkizunari begira proiektu eta estrategia bat behar dugu, ongi egina, babes zabala izango duena eta praktikara eramateko konpromiso neurgarriak barne bilduko dituen.

## **2.- ESKOLAREN BIDEZKO EUSKALDUNTZEAREN ALDEKO HERRI MUGIMENDU SENDOA SUSTATZEA, gure egitekoa.**

### **EHBEren egitekoak:**

EHBEk bi egiteko nagusi ditu: batetik, Eskolak Euskalduntzearen aldeko aldarrikapena kalera ateratzea dagokigu, Estatuetatik zein Administrazio Autonomikoetatik datozen iruzur eta erasoei erantzunez; eta, bestetik, Eskolak Euskal Herri osoko ikasle guztiak euskaldundu ditzan alternatiba nazionala beste eragile batzuekin elkarlanean egin.



Lehenengo egitekoari dagokionean, Euskal Herri osoan eskolak euskalduntzeko aldarrikapen kalean ozen aldarrikatu beharra dago. Egeraren azterketan ikusi bezala Estatuak eta Administrazio Autonomikoetako arduradunek eskolak euskalduntzearen alde egin beharrean iruzur eta eraso berriak jartzen dituzte mahai gainean. Gure hizkuntzaren etorkizuna hipotekatu nahi diguten horiei hortzak erakutsi behar dizkiegu, nazio mailan eta herriz herri, Eskolak Euskaldundu Herri Ekimenaren baitan edo EHBek propioki. Honekin batera, Euskal Herri luze zabalean hainbat ikastetxetan euskaldunoi hizkuntza eskubideak zapaltzen dizkigute erdal ereduak inposatuz ( haur eskolatik unibertsitateraino). Lekuan leku gertatzen diren eraso hauei ere erantzun behar diegu, aldi berean, aukerak baldin badaude egoerari buelta emateko proposamen eta lana ere egin beharra dago: D ereduaren alde, eskolak kanpoko ekintzak euskaldunduz, etab.

Bigarrena Alternatiba Nazionala sustatzea da. Bestalde, ezin gara beti instituzioetatik egingo dutenaren zain egon. Eskolak Euskalduntzeko ezinbestekoa da ukazio eta zatiketaren marko autonomikoak gainditu eta Hezkuntza Sistema Nazional burujabea eraikitzea. Norabide horretan, Nazio Eztatidagunean onartu bezala, eskolak Euskal Herri osoan euskaldundu dezan alternatiba nazionala eraiki beharra dago. Horretarako hezkuntza eta euskalgintzako eragileekin elkarlana sustatu eta goian aurkeztu dugun proposamena eskutan ibilbide honetan pausu berriak emateko garaia da.

### **EHBeren proposamena:**

EHBek Euskal Herriko ikasle guztiak euskaldunduko dituen proposamenaren alde indar bilketan lagundu behar du. Gure egiteko bat herri aldarrikapena ahal bezain zabalena eta ozenena izan dadin lan egitea da, bestetik, iruzur guztiari ateak ixteko ahalegina egin behar daukagu. Asko dago jokoan, momentu garrantzitsuak dira eskolak euskalduntze bidean aurrera pausu sendoak eman edo gaudenetan gelditzeko arriskua dago.

Gure lanaren oinarri ideologiko eta norabidea eskolak euskalduntzeko EHBek duen proposamena izango da .

Egiturazko aldaketa beharrezkoa da, beraz.

Eta gure ustez honako premisa hauetan oinarritu beharko litzateke:

1. Euskara eskubidea da.

2. Eskolaren helburua euskalduntzea da.

3. Helburu hori lortzeko tokiko testuingurua kontutan hartu beharra dago.

4. Bidea murgiltze erdua da.

5. Hau posible izateko, irakasleri hezkuntzako langileri euskaldun prestatua beharrezkoa da.

6. Euskaldundu ez diren herritarrei kalte ordaina zor zaie.

7. Derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren ere euskaraz ikastea eskubidea.

Jarraian printzipio hauek laburki garatuko ditugu. Atal honetako datuak Aztiker Soziologia Ikerkuntza egiteko datu bilketan ikus daitezke.

## **1 ABIAPUNTUA: EUSKARA, ESKUBIDEA.**

Egiturazko aldaketa horrek eta honako ideia honetatik abiatu behar du: euskara eskubidea da.

Izan ere, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza bakarra dela kontutan hartuz, oinarrizko eskubidea da euskara jakitea, eskolak eskubide horren bermerako tresna izan behar duelarik.

Hona hemen, zentzu honetan UNESCOk bultzatutako Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko (Bartzelona, 1996) 13. artikuluan azaltzen den ideia:

*“Pertsona orok dauka bizirik den lurraldeko hizkuntza propioa ezagutzeko eskubidea”*

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ere aipamen bat egiten da:

“Gizaki orok dauka eskubide eta askatasun guztiak”, “arrazaz, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikazko zein bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, egoera ekonomiko, jaiotza edo bestelako edozein kondizioengatik” inolako bereizketarik onartu gabe.

Hona hemen Oinarrizko Hezkuntza Akordioak barnebiltzen duen eskubidea, 2006eko urriaren 21ean Euskal Herriko hezkuntza esparruko atxikimendu zabala jaso zuena:

“ Euskal herritar orok eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, ikasgune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du.

## **2 HELBURUA: EUSKALDUNTZEA**

Euskara eskubidea baldin bada, beraz, derrigorrezko hezkuntzaren helburuak euskalduntzea izan behar du. Hau da, derrigorrezko ikasketak amaitzen dituen gazteak euskaraz jakin behar du eta euskaraz aritzeko gai izan behar du bizitzaren arlo guztietan.

## **3 TOKIAN TOKIKO TESTUINGURUA**

Helburua berdina da Euskal Herri osoan (euskalduntzea), baina tokian tokiko errealitatea ezberdina da. Bi dira kontutan hartu beharreko aldagaiak:

- Batetik, ikasle bakoitzaren hizkuntza ezagutza. Batzuek euskara etxean bertan ikasi dute, beste batzuek, ordea, eskolan izango dute lehenengo harremana euskararekin.
- Bestetik, ikastetxea dagoeneko herriko egoera soziolinguistikoa. Euskal Herriko hainbat eskualdeetan euskarak presentzia handia dauka familian, kalean, tokiko komunikabideetan e.a. Beste batzuetan, ordea, nekez entzun daiteke euskara kaletik. Argi dago bigarren multzo honetako herrietan ahalegin handiagoak egin beharko direla ikasleak euskalduntzeko, gazteen arteko harremanari arreta berezia eskainiz.

## **4.BIDEA: MURGILTZE SISTEMA**

Helburua zein den argi edukita, eta testuingurua kontutan hartuta, euskalduntze integralerako planteamendua egin beharra dago tokian toki. Noski, lehenik eta behin euskarak behar du izan irakaskuntzarako hizkuntza nagusia eta ia bakarra. Baina horrekin ez da aski. Esparru guztiak hartu behar dira aintzat:

- Klasean erabiltzen den hizkuntza-maila zaindu.
- Irakasleriaren prestakuntzari arreta eskaini.
- Kolektibo guztien arteko harremana aintzat hartu: ikasleak/ikasleak, irakasleak/irakasleak, gurasoak/irakasleak e.a.



- Hizkuntza paisaia.
  - Eskola ordutik kanpoko harremanak. Ahozkotasanari eta euskara funtzionalari arreta berezia jarri, ez da nahikoa eskolako hizkuntza euskara izatea aisialdian eta hezkuntza ez formalean euskara erabiltzeko saiakerak egitea ezinbestekoa da.
  - ...eta abar luze bat.
- Badira hainbat esperientzia ildo honetan, eta horiek aintzat hartu beharko genituzke.

### **3.5 BALIABIDEA: IRAKASLERIA, hezkuntzako langileria**

Aurretik azaldutako planteamendua bideragarria izateko, irakasle prestatuak izatea nahitaezkoa da. Zentzu honetan, prestakuntzari eta etengabeko hobekuntzari arreta berezia eskaini behar zaio.

Bestalde, oraindik ere erdal irakasleak, beraz elebakarrak eta euskara ez dakitenak, sortzen ari dira. Izan ere, irakasle eskolan erdal adarrek hortxe dira. Euskal Herrian kokaturik dauden irakasle eskoletan erdal adarren desagerpena beharrezkoa da, euskarazko adarrekin irakasle euskaldunak; beraz, eleanitzak sortuz. Irakasle Eskolatan ez ezik, CAP delakoan ere erdarazko eskaintza bertan behera gelditu beharko litzateke, bigarren hezkuntzako irakasle gehienak bertatik igarotzen direla kontutan hartu behar baita (aztertzea da CAPak aurki jasango duen bermoldaketa)

Oro har, kalitatezko hezkuntza lortzeko zein euskara ikasteko pedagogia eta metodologia zaindu beharra dago. Gutxien gutxienik, irakasle prestatuen kontratazioen kopurua handitzea ezinbestekoa da. Honekin batera ratioen jaitsiera eta pedagogia eredu berria (euskal pedagogia) behar dugu.

### **3.6 EUSKALDUNDU EZ DIREN HERRITARRAK: ORDAINA**

Aurretik azaldutako oinarriak erretroaktibitatez aplikatu beharra dago. Hau da, euskara eskubidea dela eta eskolak euskaldundu behar duela onartzen baldin badugu, orain arte eskolak euskaldundu ez dituen herritarrak kaltetuzat jo behar ditugu ezinbestean, eta ordaina zor zaiela onartu. Izan ere, egungo eskolatzea amaiturik, euskara ezagutu eta hitz egin ezinik atera diren pertsonak, hots, eskolak hizkuntza ikuspegitik kaltetu dituen herritarrek, euskara ezagutzeko egin beharreko ahaleginak handiak dira. Zentzu honetan, egoera hori bizi duten herritarrei, helduen euskalduntze eta alfabetatze sarean, Euskal Herrian diren administrazioek doako euskalduntzea bermatzea eskatzen dugu.

### **3.7. LANBIDE ESKOLA ETA UNIBERTSITATEA EUSKALDUNDU**

Euskaldunduak izan diren ikasle guztiek, derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren euskaraz ikasi, bizi eta lan egiteko eskubidea dute. Hezkuntza euskaraz jasotzea beraien eskubidea da eta horretarako Euskal Herriko unibertsitate eta Lanbide Eskola guztiak euskalduntzeko plangintza estrategiko eraginkorrak martxan jartzeko ordua da!

**Euskal Herrian, 2008ko azaroa**  
**Euskal Herriak Bere Eskola**